

WALDEN

baso irakurraldia

Ur Mara Museoan

2022-09-17

18:30

Hernani Kale Literatura Hernanitik kanpo irtengo da Alkizan irakurraldi partekatua egiteko, Ur Mara museoak urtero antolatzen duen programarekin bat eginez. Eguraldia lagun, basoan zehar egingo dugu 5 geltokietako ibilbidea eta “Thoreau gunean” amaitu. Euria eginez gero, negutegian. Musikaz lagunduta, Henry D. Thoreauren klasikotik pasarte hautatuak irakurriko ditugu, nork nahi duena, nahi duen eran.

1. geltokia: **harreran**



1.1. Nik uste dut lasai asko izan dezakegula (41)

Nik uste dut lasai asko izan dezakegula
orain daukaguna baino askoz ere konfiantza gehiago.
Besteak zintzotasunez zaintzen baditugu,
hein horretan zainduko genuke geure burua.
Natura berdin egokitzen da
gure ahultasunera zein gure indarrera.

1.2. Eguraldia edozein izanda ere (46)

Eguraldia edozein izanda ere,
eguneko zein gaueko ordu orotan,
irrikaz egon naiz unean unekoa hobetzeko
eta nire makilarekin neurtzeko;
bi eternitate gurutzatzen diren lekuan zutitzeko
—iraganaren eta etorkizunean artean, alegia,
oraingo unean berean—,
eta hari men egiteko.

1.3. Kontuz ibili arropa-eramaile berri baten ordeztan (53)

Kontuz ibili arropa-eramaile berri baten ordeztan
arropa berrien premia dakarten egitasmoekin.
Ez baldin badago gizon berririk,
nola egokituko zaizkio arropa berriak?
Jarduera berri bati heldu beharrean bazaude,
saia zaitez arropa zaharrekin egiten.
Gizonei, izan ere, zer *egin* falta zaie,
edo, hobeto esanda, zer *izan*,

ezen ez *zerekin* egin.

1.4. Gure asmakuntzak, normalean (79)

Gure asmakuntzak, normalean,
jolas politak izaten dira:
gauza serioetatik desbideratzen gaituzte.
Baliabide hobetuak baino ez dira,
betiko xede zaharrerako;
xede bat zeina erraz lortu baitzitekeen
lehendik ere,
Bostonera edo New Yorkera doan burdinbidea bezalaxe.
Presa bizian eraiki nahi genuke telegrafo magnetiko bat,
Mainetik Texasera joan dadin,
baina Mainek eta Texasek
agian ez dute izango elkarri esateko
gauza garrantzitsurik.

1.5. Ez nuke nahi inor bizi dadin *nire* erara (96)

Ez nuke nahi inor bizi dadin *nire* erara;
zeren, baliteke, beste horrek ganoraz ikasi orduko nire erara
nola bizi,
nik beste bizimolde bat aurkitu izana;
gainera, desio dut munduan ahal bezain beste pertsona-mota
egon daitezela,
eta bakoitzari aholkatuko nioke tentu handiz jarrai diezaiola
bere bideari,
eta ez, ordea, bere aitarenari edo amarenari edo auzoarenari.
Gazteak zerbait eraikiko du, edo zerbait landatuko,

edo itsasoratu egingo da agian,
baina ez diezaiozue galarazi egin nahi duela esaten duen hori
egin dezan.

Puntu matematiko bakar batek bihurtzen gaitu jakintsu,
marinelak eta ihes egindako esklaboak iparrizarrari
erreparatzen dioten eran,
eta aski gidaritzza da horixe gure bizitza osorako.

Ez gara, beharbada, gure portura iritsiko epe neurgarri batean,
baina egiazko bideari eutsiko diogu.

1.6. Egunsentiaren hasieran (112)

Egunsentiaren hasieran,
etxeko atarian esertzen nintzenean
leihoak zabalik,
etxean barna jirabiraka zebilen eltxoaren furrundak
biziki eragiten zidan,
inoren ospea aldarrikatzen duten tronpetek bezainbeste.

Homeroren requiema zen:
Iliada bat edo Odisea bat airean,
bere amorruak eta noraezak kantatuz.

2. geltokia: **negutegian**



2.1. Zergatik bizi behar dugu halako presaz (116)

Zergatik bizi behar dugu halako presaz,

bizitza hala xahutuz?

Tematuta gaude goseak hil behar dugula

goseak egon aurretik.

Gizonek esaten dutenez, puntada bat garaiz emanez gero,

bederatzi aurrezten dira;

hortaz, mila puntada ematen dituzte gaur,

biharko bederatziak aurrezteko.

Lanari dagokionez,

ez daukagu lan garrantzitsurik batere.

San Vitoren dantzak bizi gaitu,

eta ezin diogu geure buruari zuzen eutsi.

2.2. Inguratzen gaituen errealitatea (120)

Inguratzen gaituen errealitatea

hartuz eta txertatuz bakarrik izango gara gai
sublimea eta noblea den guztia atzitzeko.

Unibertsoak etenik gabe

eta esaneko erantzuten die gure asmakuntzei;

bizkor nahiz mantso joan,

bidea ezarria dago gure aurrean.

Bizia eman dezagun, bada, asmatzen.

2.3. Arrantza egiten dudana da (121)

Arrantza egiten dudana da

denbora,

ez besterik.

Bertatik edaten dut,

baina, edan bitartean,

hondo hareatsua begiztatzen dut,

eta egiaztatzen dut azalekoa dela guztiz.

Badoa haren korrante arina;

eternitateak irauten du.

Sakonago edango nuke,

eta zeruan arrantza egin,

zeinaren hondoa

izarrez

josia baitago.

2.4. Dibinitatearen estatuaren gaineko beloa (123)

Dibinitatearen estatuaren gaineko beloa
zertxobait altxatu zuen,
mutur batetik helduz,
filosofo egiptoar edo hindu zaharrenak,
eta soineko dardaratiak halaxe jarraitzen du,
altxaturik;
so nagokio,
garaiko filosofoa bezala,
neronek piztu bainuen haren barneko ausardia,
eta, orain,
hura dago nigan,
ikuspegia berritzen.

2.5. Batzuetan, udako goizetan adibidez (135)

Batzuetan, udako goizetan adibidez,
ohi bezala bainatu ostean,
atari eguzkitsuan esertzen nintzen
egunsentitik eguerdira bitarte,
ameskerian murgildurik zeharo,
pinuen eta intxaurrondoan eta zumakeen artean,
bakardade eta baretasun erabatekoan,
txoriak inguruan zebiltzalarik kantuan,
edo hotsik egin gabe ibiltzen zirelarik etxean barna,
harik eta, eguzkia sartaldeko leihotik sartzen zelarik,
edo bidaiariren baten gurdi-hotsa iristen zitzaidalarik

urruneko errepidetik,
denboraren igaroaz ohartzen nintzen arte.
Bolada horietan hazi egiten nintzen,
artoa gauez hazten den bezala,
eta lantegi hobearen hura
eskuz egin nezakeen beste edozein baino.

2.6. Lehenengo udan ez nuen libururik irakurri (135)

Lehenengo udan ez nuen libururik irakurri,
babarrunak erein nituen.
Ez, hori baino gauza hobeak egin nituen maiz.
Zenbaitetan,
ezin nuen sakrifikatu uneko unearen lorea,
ezin nion lanari eskaini,
izan lan fisikoa zein adimenezkoa.
Maite dut marjina zabala izatea nire bizitzan.
Batzuetan, udako goizetan adibidez,
ohi bezala bainatu ostean,
atari eguzkitsuan esertzen nintzen
egunsentitik eguerdira bitarte,
ameskerian murgildurik zeharo.

3. geltokia: **efimeran**



3.1. Merkantzia-trenetan doazen gizonek (139)

Merkantzia-trenetan doazen gizonek,
bidea oso-osorik ibiltzen dutenak,
aspaldiko lagun bat banintz bezala
agurtzen naute;
maiz-maiz ikusten nautenez,
trenbideko langilea naizela uste bide dute,
eta horixe naiz, egiaz.
Atsegin handiz jardungo nintzateke
errailak konpontzen lurraren orbitako lekuren batean.

3.2. Iluntze xarmagarri bat da hau (151)

Iluntze xarmagarri bat da hau;
gorputzak zentzumen bakar bat osatzen du,
eta plazerez betetzen da poro guztietatik.
Hara eta hona nabil Naturan barna,
halako askatasun bitxi baten jabe,
haren parte bihurturik.
Lakuaren ertz harritsuan zehar noa,
alkandora hutsean, nahiz eta fresko egiten duen
—lainotuta dago eta haize fina dabil—,
eta ez dut ikusten erakarriko nauen gauza berezirik;
elementu guztiak bat datozen
nire izatearekin
ezohiko moduan.

3.3. Udaberrian, hori bai (152)

Udaberrian, hori bai,
lantzean behin hurbiltzen dira kalekumeak lakura,
katu-arrainak arrantzatzerak
—hala ere, agerikoa da, Walden lakuan,
arrainak baino neurri askoz handiagoan
arrantzatzen dutela beren burua,
amuei iluntasuna beitatuz—.

3.4. Harriak jotzen nituenean aitzurrarekin (179)

Harriak jotzen nituenean aitzurrarekin,
musikak oihartzun egiten zuen

basora eta zerura,
eta nire lanean laguntzen zidan
uzta berehalako eta neurtezin bat emanez.
Ordurako ez ziren babarrunak jorratzen nuen hori,
ezta ni neu babarruna-jorratzailea izan ere,
eta gupida adina harrotasunez oroitu nituen,
baldin eta oroitzeko gai banintzen benetan,
hirira oratorioak entzutera joanak ziren lagunak.

3.5. Hurrengo uda batean (183)

Hurrengo uda batean
ez ditut babarrunak eta artoa landatuko
hain buru-belarri,
bestelako haziak baizik,
baldin eta ez badira guztiz galdu;
landatuko ditut zintzotasuna,
egia,
sinpletasuna,
fedea,
inozentzia
eta antzekoak,
eta ikusiko dut
ea hazten diren lur honetan,
arreta eta ongarri are gutxiago emanda ere,
eta ea mantentzen nauten.

3.6. Goizean aitzur-lanetan aritu ostean (187)

Goizean aitzur-lanetan aritu ostean,
edo beharbada irakurtzen eta idazten,
berriro bainatu ohi nintzen lakuan;
bertako badietako bat zeharkatzen nuen tarte batez,
eta lanaren hautsa kentzen nuen gorputzetik,
edo berdintzen nituen ikasketek sortutako zimur guzti-guztiak;
horrela, nire izatea guztiz aske sentitzen zen arratsalderako.
Egunero, edo bi egunean behin,
herrira joaten nintzen oinez,
han etengabe gertatzen diren txutxu-mutxuen berri izateko;
ahoz aho ibiltzen dira,
edo egunkariz egunkari bestela,
eta hostoen xuxurla edo igelen kantua
bezain suspergarriak dira dosi homeopatikoetan hartuz gero.
Nola joaten nintzen basora txoriak eta katagorriak ikustera,
hala inguratzen nintzen herrira gizonak eta mutilak ikustera;
gurdien triki-traka aditzen nuen pinu artean dabilen haizearen
ordez.

4. geltokia: **soroan**



4.1. Erabat galtzen garenean (191)

Erabat galtzen garenean

orduan bakarrik jabetzen gara Naturaren itzelaz eta bitxiaz.

Gizon orok berrikasi behar ditu iparrorratzaren puntuak
iratzartzen den aldiro,

berdin du lozorroan zegoen

edo beste moduren batean abstraituta.

Harik eta galtzen garen arte,

harik eta mundua galtzen dugun arte,

ez gara hasten gure burua aurkitzen,

eta orduantxe ohartzen gara non gauden

eta zer infinituki zabalak diren gure harremanak.

4.2. Amerika egiazko bakarra, ordea (223)

Amerika egiazko bakarra, ordea,
bestelakoa da:
herrialde bat non aske baitzara
nahi duzun bizimoldea bilatzeko,
gisa horretako produktuen premiarik izan gabe;
herrialde bat non estatuak ez baitzaitu konbentzitu nahi
esklabotza, gerra eta bestelako gastu alferrikako batzuk babes
ditzazun,
aipaturiko produktuen erabileraren ondorio zuzenak
eta zeharkakoak
direnak gainera.

4.3. Poztuko nintzateke baldin eta (223)

Poztuko nintzateke baldin eta
lurreko zelai guztiak bere horretan utziak izango balira,
egoera salbaian,
gizonek bere burua erredimitzen hasi izanaren ondorioa balitz
hori.
Gizonak badaki,
historia ikasi beharrik gabe,
zer den onena bere kulturarentzat.

4.4. «Zoaz nahi beste arrantza eta ehiza egitera egunero (225)

«Zoaz nahi beste arrantza eta ehiza egitera egunero,
iritsi zaitez gero eta urrutia gora,

eta har ezazu atsedeen nahi adina erreka eta suren ondoan,
beldurrik gabe.

Gogoan izan zure Egilea gaztaroko egunetan.

Altxa zaitez, kezkarik gabe, goiz-albaren aurretik,
eta abia zaitez abentura bila.

Beste laku batzuetan aurki zaitzala eguerdiak,
eta gauak edozein lekutan harrapatzen zaituelarik ere,
senti ezazu zure etxean zaudela.

Ez dago larre zabalagorik, ez dago jolas duinagorik.

Haz zaitez basati, zeure izatearen arabera,
ihi eta iratze hauen antzera, zeinak ez baitira inoiz bihurtuko
sarale.

Egin dezala orro trumoiak,
zer axola du nekazarien uztak hondatzen baditu?

Mezu hori ez dagokizu zuri.

Babes zaitez hodeiaren azpian,
besteak gurdietarantz eta aterpeetarantz bideratzen direlarik.
Bizibidea aurrera ateratzeko, ez ekin lanbide bati,
ezpada denbora-pasa bati.

Goza ezazu lurraz, baina ez zaitez izan haren jabe.

Ekimenik eta federik ez dutelako daude gizonak dauden tokian:
saltzen, erosten eta beren bizitzak xahutzen mirabetzan».

4.5. Gizateriaren argudio eta ohitura orori (233)

Gizateriaren argudio eta ohitura orori

gailenduko zaio,

azkenean,

gizon osasuntsu batek

egiazkotzat jotzen duen
eragozpenik txikiena.

4.6. Zeri buruz ari nintzen bada pentsatzen? (241)

Zeri buruz ari nintzen bada pentsatzen?

Egun lanbrotsua zen oso.

Konfuzioren hiru esaldi hauek

probatuko ditut,

agian lehengo aldarteak itzuliko didate berriro.

Ez dakit zeharo abaildurik nengoen

edo bozkarioaren eldarnioan.

Gogoratu:

aukera bakoitza behin bakarrik gertatzen da.

5. geltokia: **etxean**



5.1. Esnatu nintzelarik neguko gau bare baten ostean (295)

Esnatu nintzelarik neguko gau bare baten ostean,
irudipena izan nuen galderaren bat egin zidatela,
eta erantzuten ahalegindu nintzela,
alferrik, nire loaldian:

zer?

nola?

noiz?

non?

Baina iratzartzen hasia zen Natura bera,
zeinetan bizi baitira izaki guztiak,

eta nire leiho zabalei beha zegoen aurpegiera lasai eta
asearekin;

galderarik ez *haren* ezpainetan.

Jada erantzundako itaun batekin esnatu nintzen beraz:

Natura eta egunaren argia.

Pinu gaztez zipriztinduriko elur-geruza lodiak

eta nire etxea zegoen muino-hegalak berak

zera esaten zidatela zirudien:

Aurrera!

5.2. Lurra ez da historia hilaren pusketa hutsa, estratuz estratu osatua (319)

Lurra ez da historia hilaren pusketa hutsa, estratuz estratu
osatua

—liburuak orrialdez osatzen diren bezala—,

geologoek eta antikuarioek azter dezaten soilik;

aitzitik, poesia biziduna da,

zuhaitz-hostoen antzekoa,

loreen eta fruituen aurrekari:

ez da lur fosila, ezpada lur biziduna;

haren bizitza itzel eta berebizikoarekin alderaturik,

parasitikoak dira animalia-bizitza eta bizitza begetal guztiak.

5.3. Zaparrada leun batek hainbat tonu berdeago bihurtzen du belarra (324)

Zaparrada leun batek hainbat tonu berdeago bihurtzen du
belarra.

Gure ikuspegiak ere halaxe:

argitu egiten dira pentsamendu hobeen eraginpean.

Bedeinkatuak ginateke orainaldian bizi bagina beti,
eta probetxua aterako bagenio gertatzen zaigun istripu orori
—horixe egiten baitu belarrak,
gainean erortzen zaion ihintza-tantarik arinenaren eragina
aitortu—,
eta ez bagenu denborarik xahutuko
iraganeko aukera galduak konpontzen saiatzen,
horri esaten baitiogu gure zeregina betetzea.
Neguko alferkerian iraulkatzen gara,
nahiz eta udaberria izan jada.

5.4. Behinik behin, gauza bat ikasi nuen nire esperimentuari esker (333)

Behinik behin, gauza bat ikasi nuen nire esperimentuari esker:
baldin eta batek fidantziaz aurrera egiten badu bere ametsen
norabidean,
eta ahalegintzen bada berak irudikaturiko bizia bizitzen,
ordu arruntetan espero izaten ez den moduko arrakasta-suerte
bat ezagutuko du.
Atzean utziko ditu zenbait gauza,
zeharkatuko du muga ikusezin bat;
lege berri, unibertsal eta irekiagoak
ezarriko dira bere inguruan nahiz bere baitan;
edo, bestela, hedatuko dira lege zaharrak,
eta bere mesedetan interpretatuko dira,
tolerantzia handiagoarekin;
izaki gorenaren ordenari dagokion libertatearekin biziko da.
Bere bizia sinplifikatzen duen neurrian,
unibertsoko legeak ez zaizkio irudituko hain konplexuak;

bakardadea ez da izango bakardadea,
pobrezia ez da izango pobrezia,
ezta ahultasuna ere ahultasuna.
Gazteluak eraiki badituzu airean,
zure lana ez da galduko:
ondo daude airean.
Orain, jarri zutarriak azpian.

5.5. Maitasuna, dirua edo fama gabe emadazue egia (340)

Maitasuna,
dirua
edo fama gabe
emadazue
egia...

Errege bat ikustera joan nintzen,
baina atarian eduki ninduen zain,
eta abegikorra izateko ahalmenik ez zuen
gizon baten antzera aritu zen.

Nire auzoko gizon bat
zuhaitz huts batean bizi zen.

Harenak bai errege-manerak.

Hobe nukeen hura ikustera joan banintz.

5.6. Gure baitako bizitza (342)

Gure baitako bizitza

ibaiko uraren parekoa da.

Baliteke gizonak inoiz ezagutu gabeko

altuerara iristea aurten ur horiek,
eta goiko lur idorrak urpetzea;
baliteke, are, hauxe izatea arratoi musketadun guztiak
itoko diren urte gogoangarria.

Bizi garen lurralde hau ez da lehorra izan beti.
Zientziak uholdeen berri erregistratu aurreko
garai antzinakoetako ur-bazterren aztarrenak
ikusi izan ditut barnealdean.